



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko urtarrilaren 17a

4. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du funtsezko eskubideak eta askatasunak babesteko duen konpromisoa, eta, beraz, indarkeria terroristaren aurrean duen jarrera irmoa. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Foru Ogasunak Larraina Klubari eginiko ordainketei eta haien kontzeptuari, klub horren estatu-tuei eta generoko bazterkeriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak programaturiko turismo-bisiten alderdi batzuei buruzkoa, eta haietan Nafarroako ipar-mendebaldea ez sartzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak 2003. urtetik gaur egun arte irakurzaletasuna sustatzeko erabili duen aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren ustez azpiegiturretan arazoak edo gabeziak dituzten ikastetxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, papilomaren birusaren aurkako txertoa jartzen hasteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik gertatzen den, oraindik ere, bazterkeria Iruñeko ginekologia-zerbitzuetara jo eta biharamuneko pilula dohainik jasotzen duen emakumearen eta Tuterako aldean zerbitzu horietara jo eta pilula ordaindu behar duen emakumearen artean. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, nekazariak edo abeltzainek ordaindutako edo pairatutako kuoten itzulketa bereziei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, oinarritzko osasun laguntza eta laguntza espezializatua koordinatzeko itunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Portugalia enpresak Iruña-Lisboa hegaldiak eteteko eta ondoren berriro abian jartzeko izan dituen arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, aireko ozonoari buruzko 1796/2003 Errege Dekretuari dagozkion urteko txostenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Adierazpen instituzionala. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du funtsezko eskubideak eta askatasunak babesteko duen konpromisoa, eta, beraz, indarkeria terroristaren aurrean duen jarrera irmoa.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2008ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, ondoko adierazpen instituzionala onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du funtsezko eskubideak eta askatasunak babesteko duen konpromisoa, eta, beraz, indarkeria terroristaren aurrean duen jarrera irmoa.

2. Nafarroako Parlamentuak poza agertzen du ustezko bi terrorista –hala ere, aitortpena egin dute– atxilo hartzeagatik. Bi terrorista horiek ETA-ren komando aktibo batekoak ziren eta, beste ekintza terrorista larri batzuen artean, Barajaseko 4. terminaleko atentatu basatia eta bi herritar errugaberen heriotza leporatzen zaie.

3. Nafarroako Parlamentuak bere atxikimendua adierazten die Estatuko segurtasun indar eta kidegoei, eta, era berean, zuzenbidearen estatuaren funtsezko printzipioei eusteko egiten duten lan garrantzitsua ezagutzen die; orobat, eskertu egiten die Espainiako gizarte osoari ematen dioten zerbitzu leiala, atentatuei aurrea hartuz, terroristak jazarriz, horiek atxilotuz eta justiziaren esku jarritz.

4. Nafarroako Parlamentuak poza agertzen du zuzenbidearen estatuak berme osoz eta erabateko normaltasunez funtzionatzen duela egiaztatu ahal izateaz.

5. Nafarroako Parlamentuak indar politikoei zuhurtasuna eta lasaitasuna eskatzen die, gizartean alarrik pitz ez dezaten susmoak hauspotuz, ondorioak alde aurretik ateraz eta ustezko terroristen egoerari buruzko iritziak emanez; aldi berean, Nafarroako Parlamentuak eskatzen du errespetuz jokatzeko justiziak abian jarria duen lanarekin, eta men egin dakiela justiziak hartzen dituen erabakiei.

6. Nafarroako Parlamentuak atsekabea adierazten du Nafarroako Foru Komunitateko herritarrek gauza izateagatik hain ekintza arbuigarriak, higuigarriak eta gaitzesgarriak egiteko, eta beren jaioterriaren izena, Lesaka, eta ondorioz, Nafarroaren izena, pertsona horiekin eta beren ekintzekin lotuta agertzeagatik.

7. Nafarroako Parlamentuak batasunerako deia egiten die berriro ere indar demokratiko, gizarterakunde eta, oro har, herritar guztiei, horrela, legezkotasuna oinarri hartuta, eta irmotasun osoz, terrorismoaren gaitzarekin amaitzea lortzeko eta bake osoa, behin betikoa eta atzeraezina iristeko”

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 14an

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**F saila:**  
**GALDERAK**

**Galdera, Foru Ogasunak Larraina Klubari eginiko ordainketei eta haien kontzeptuari, klub horren estatutuei eta generoko bazterkeriari buruzkoa.**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Foru Ogasunak Larraina Klubari eginiko ordainketei eta haien kontzeptuari, klub horren estatutuei eta generoko bazterkeriari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko irailaren 14ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra/Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko eledunak galdera egin zuen Larraina elkarteari buruzko informazioa jasotzeko, eta idatzi hau sinatu duen Gizarte Ongizate, Familia, Gazteria eta Kirol kontseilariak erantzun hau eman dio:

Izquierda Unida de Navarra/Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak galdera hauek egin ditu, eta idatziz jaso nahi du erantzuna:

1.- Zenbat diru ordaindu dio Foru Ogasunak Iruñeko Larraina elkarteari eta zer kontzepturen-gatik, azken 5 urteetan?

Hasteko, lehen-lehenik adierazi behar dugu "Larraina elkarte" entitatea ez dela izen horrekin jasota agertzen Foru Ogasunaren erregistroetan, eta, hortaz, ulertu beharko dugula "Larraina kirol-zelaia" izeneko entitatea aipatzen duela galderak. Hemendik aurrera "Larraina kirol-zelaia" izeneko entitatea aipatuko dugu.

Ildo horretatik, adierazi behar dugu azken 5 ekitaldietan (oraingo ekitaldia barne) entitate horri egin zaizkion ordainketa guztiak Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua izenekoak emandako dirulaguntzak izan direla, kirol-jarduerengatik eta instalazioetan lanak egiteagatik. Hauek izan dira emandako dirulaguntzak:

**KIROL-JARDUERENGATIK EMANDAKO DIRULAGUNTZAK**

Federazioa	Modalitatea	Kontzeptua	Ebazpenaren zenbakia	Zenbatekoa
Pilota	Erreminta	Kluben arteko espainiako txapelketa. Ohorezko maila. Erreminta	783/03	1.646,00
Igeriketa	Water-poloa	Iruña hiria water-polo txapelketa	740/03	720,00
Igeriketa	Igeriketa	Espainiako master txapelketa	740/03	570,00
Igeriketa	Water-poloa	Water-poloko 1. Mailako euskalerrria liga	782/03	3.781,00
Igeriketa	Water-poloa	A-2 ohorezko mailako water-polo liga	429/03	45.234,00
Igeriketa	Water-poloa	Egonaldia- prezioan salbuespena		816,84
<b>Guztira</b>				<b>52.767,84</b>

**KIROL-JARDUERENGATIK EMANDAKO DIRULAGUNTZAK**

<b>Federazioa</b>	<b>Modalitatea</b>	<b>Kontzeptua</b>	<b>Ebazpenaren zenbakia</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Pilota	Erreminta	Kluben arteko espainiako txapelketa. Ohorezko maila. Erreminta	309/04	3.750,00
Igeriketa	Water-poloa	16 urtetik beherakoentzako euskalerrria liga. Water-poloa	628/04	3.137,00
Igeriketa	Water-poloa	Gazteentzako euskalerrria liga. Water-poloa	480/04	774,00
Igeriketa	Water-poloa	Water-poloko 1. Mailako euskalerrria liga	628/04	1.440,00
Igeriketa	Water-poloa	A-2 ohorezko mailako water-polo liga	309/04 eta 628/04	90.000,00
Igeriketa	Water-poloa	Egonaldia- prezioan salbuespena		1.503,29
Igeriketa	Water-poloa	Espainiako master 40 txapelketa. Water-poloa	480/04	1.391,00
<b>Guztira</b>				<b>101.995,29</b>

<b>Kontzeptua</b>	<b>Ebazpenaren zenbakia</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Kirol-instalazioak handitzeko lanak	<b>476/04</b>	112.690
<b>Guztira</b>		<b>112.690</b>

**2005. URTEA**

**KIROL-JARDUERENGATIK EMANDAKO DIRULAGUNTZAK**

<b>Federazioa</b>	<b>Modalitatea</b>	<b>Kontzeptua</b>	<b>Ebazpenaren zenbakia</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Pilota	Erreminta	Kluben arteko espainiako txapelketa. Ohorezko maila. Erreminta	437/05	3.876
<b>Guztira</b>				<b>3.876</b>

**2006. URTEA**

**KIROL-JARDUERENGATIK EMANDAKO DIRULAGUNTZAK**

<b>Federazioa</b>	<b>Modalitatea</b>	<b>Kontzeptua</b>	<b>Ebazpenaren zenbakia</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Pilota	Erreminta	Ohorezko maila	667/06	3.750
Pilota	Pala motza	Iruña 2006 pala motzeko nazioarteko opena	783/06	1.560
<b>Guztira</b>				<b>5.310</b>

**2007. URTEA**

**KIROL-JARDUERENGATIK EMANDAKO DIRULAGUNTZAK**

<b>Federazioa</b>	<b>Modalitatea</b>	<b>Kontzeptua</b>	<b>Ebazpenaren zenbakia</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Pilota	Erreminta	Ohorezko maila	337/07	3.750
Pilota	Pala motza	Iruña 2007 pala motzeko nazioarteko opena	Banatzeko	0
<b>Guztira</b>				<b>3.750</b>

2.- Larraina elkartearen estatutuak legez erregistratuta al daude Foru Administrazioan eskumena duen organoan? Ba al daki Nafarroako Gobernuak zenbat elkartek, klubek, erakundek eta beste hainbat motatako gizarte-taldek galarazten duten estatutuetan elkarteko kide izateko eskubidea beste genero batekoak izateagatik?

Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legean eta Nafarroako Kirol Entitateak eta Nafarroako Kirol Entitateen Erregistroa arautzen dituen apirilaren 14ko 80/2003 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, "Larraina kirol-zelaiak" ez du kirol-entitatearen izaera, eta, hortaz, ez dago kirol-entitate gisa erregistratuta erregistro horretan.

"Larraina Kirol Elkartea" Nafarroako Foru Komunitateko Kirol Elkarten Erregistroaren barruan dago, elkarte filial gisa. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen 494/1993 ebazpenaren bidez erregistratu zen. Txirrindularitza, igeriketa eta pilota jarduerak egiten dituela ageri da.

Bestalde, aipatutako entitatea irabazi-asmorik gabeko entitate gisa erregistratuta dago Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuko Elkarten Erregistro Orokorrean.

Ildo horretatik, adierazi behar dugu ezin dela jakin zenbat entitatetan ezin den entitateko kide egin genero-arrazoiengatik.

3.- Talde horren/horien estatutuetan ageri den genero-diskriminazioak legezko printzipioen bat (Espainiako Konstituzioa barne) urratzen duela iruditzen al zaio Nafarroako Gobernuari, oinarrizko eskubidea baita sexu-arrazoiengatik inor ez diskriminatzea?

Hain zuzen ere, Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan ezarrita dago galarazita dagoela inor diskriminatzea; besteak beste, sexu-arrazoiengatik. Debeku horretatik eratoritzen da, zalantzarik gabe, emakumeek eta gizonek bizitzako eremu guztietan trataera eta aukera berak izateko eskubidea. Botere publikoei dagokigu, kasu honetan Nafarroako Gobernuari, eskubide hori betetzea galarazten duten oztupoak kentzea.

Hala ere, ezin dugu ahaztu Konstituzioak berak onartzen duela 22. artikuluan elkartzeko eskubidea, artikulua horretan bertan ezarritako mugekin bakarrik; hau da, delitua diren helburuak lortu nahi izatea edo delitu diren bitartekoak erabiltzea, bai eta elkarte sekretua edo paramilitarra izatea ere.

Muga horiek ez dituen edozein elkarte pribatuk du sortzeko eskubidea, eta haren arauak betez libreki funtziona dezake. Administrazio publikoek ezin dezakete eskurik sartu gai horietan, aipatutako elkartzeko eskubidearen eraginkortasuna bermatzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 2an

Gizarte Ongizate, Familia, Gazteria eta Kirol kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak programaturiko turismo-bisiten alderdi batzuei buruzkoa, eta haietan Nafarroako ipar-mendebaldea ez sartzeko arrazoiei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak programaturiko turismo-bisiten alderdi batzuei buruz, eta haietan Nafarroako ipar-mendebaldea ez sartzeko arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko irailaren 21eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko José Ángel Agirrebengoa Imaz foru parlamentari jaunak gai honi buruz egindako eskaerari erantzunez:

“Aurreko ostiralean, irailaren 7an, Nafarroako Gobernuak jakinarazi zuen irailaren 10etik, astelehenetik, aurrera Espainiak 14 herrialdetan dituen turismo-bulegoetako 35 turismo-informatzaile eta Turespañako teknikariak Nafarroara etorriko zirela, Foru Erkidegoko hainbat turismo-leku garrantzitsu ezagutzeko.

Besteak beste, bi bisita turistiko antolatu zituzten Erriberrira, Errege Bardeara, Iruñera, Orreagara, Irunberriko arroilara, Leireko monasteriora eta Xabierko gaztelura, Nafarroako kultura- eta natura-baliabideak ezagutarazteko.

Gobernuak berak azaldu zuenez, hainbat merkatutan Nafarroa sustatzea eta turismo-informatzaileen lana eraginkorragoa izatea zen bisiten helburua.

Horregatik guztiagatik, interesatzen zaigu hau jakitea:

a) Zergatik ez da sartu bisitetan Nafarroaren ipar-ekialdeko tokirik (Baztan, Malerreka, Bidasoa, Larraun, Sakana), nahiz eta han egon, besteak beste, turismo-azpiegitura eta -baliabide gehien?

b) Toki horiei buruzko zer informazio eman die departamentuak turismo-informatzaileei?

c) Zer ekintza ari da egiten departamentua aipatutako eskualdeetako turismo-baliabideak sustatzeko?

d) Bisita bereziren bat aurreikusita al dago antzeko helburuekin Nafarroaren ipar-ekialdea ezagutzeko?”

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak hau jakinarazten du:

Bertziko Partzuergoko eremu guztia sartuta dago gure jardueretan eta sartuta egonen da turismo-eragileek eta komunikabideek inguruneak ezagutzeko egiten dituzten bidaia gehienetan. Ez da nahita baztertu Baztan-Bidasoa eremua turismoa sustatzeko jardueretatik.

Esaterako, Nafarroa ezagutzeko kazetariekin eta aholkulari turistikoeekin 2007an egin diren 10 bidaietatik seitan egon da Baztan-Bidasoa eremua bisita-programan.

Adibidez, enpresa-pizgarriak antolatzen dituen Frantziako bidaia-antolatzaileen elkarteko kideek bisitatu zuten Nafarroa irailean. Egutetako batean, Baztan-Bidasoako turismo-baliabideak eta –osta-

tuak bisitatu zituzten: Olabe, Legasa, Narbarte, Elizondo eta Arizkun.

Inoiz ez da ezkutatu Nafarroako errealitatea. Aldiz, zenbait hizkuntzatan (euskaraz ere bai, noski) idatzita dauden departamentuaren liburuxkak irakurriz gero, argi ikusten da Nafarroa heterogeneoa aurkezten dugula, hainbat paisaia, kultura eta hizkuntza dituen Nafarroa. Nazioarteko turismo-bulegoetako informatzaileei bidalitako ongietorri-gutunean hau esaten zitzaien: “Ziur gaude Nafarroa altxorra dela. Gure erkidego txiki eta zaharraren muga historikoen barruan, klima, jende eta paisaia aniztasun harrigarria bizi da batera. Ipar-mendebaldeko mendigune berde iraunkorretik hasi eta Bardeako basamortu-terrazetara, Pirinioetako gailur ikaragarrietatik eta Nafarroa Erdiko monumentu eta hirietatik Ebroren arroko ordoki zabaletara. Halaber, hainbat kulturaren eta hizkuntzaren egiazko memoria bizia gara, eta, Espainiako nazioaren barruan, nortasun-ezaugarri berezituak ditugu.

Turismoa sustatzeko euskarrietan aipatutako Nafarroako eremua azaltzen den adibidea da Baztango Ziga aukeratu dutela Nafarroa osoa aurkezteko, turismoa sustatzeko euskarri nagusietan: Nafarroako liburuxka orokorra, prentsarako CDa, zabalkunderako bideo elkarreragilea. Nafarroa sustatzeko masiboki zabalduko diren bost horma-irudietako bat Zigari buruzkoa da.

[www.turismo.navarra.es](http://www.turismo.navarra.es) web-orrian Nafarroa aurkezten duten 10 ibilbideetatik bi Baztan-Bidasoako dira: haietako bat Baztan-Urdazubi ibarrekoa eta Zugarramurdikoa da eta bestea, berriz, Bertizkoa eta Bidasoa ibaikoa. Baztan-Bidasoako baliabideak etengabe ageri dira web-orriko atal guztietan.

Nekazaritza eta Turismo Departamentuaren bitartez Nafarroako Gobernuak argitaratutako Navarra a la Carta liburuaren azalean Leurtzako urtegiak ageri dira.

Nafarroatik kanpora egiten diren sustapen-ekitaldi guztietan (azokak, erakusketak eta aurkezpenak), olanak eta taulak jartzen dira, eta haietan guztietan azaltzen da beti Baztan-Bidasoa eremua.

2007an komunikabide orokorretan egin den publizitate-kanpainaren barruan, Zugarramurdiko sorginen museo berria aurkezteko iragarki bat argitaratu zen duela gutxi. Museoa ageri da, gainera, 2007ko udazken-neguko “Lau urtaroen Erresuma” aldizkariaren azalean. Aldizkariaren 20.000 ale argitaratzen eta banatzen dira.

Aurreko legegintzaldian, Kultura eta Turismo Departamentuak turismo-jarduera ugari antolatzen lagundu du Baztanen, Urdazubin, Zugarramurdin, Bertizaranan, Bidasoan, Malerrekan eta Bortzirietan.

Sektore pribatuari ematen zaizkion laguntzak kontuan hartu gabe, 3,4 milioi euroko dirulaguntzak eman zaizkie tokiko erakundeen inbertsioei, 2003-2007 denboraldian.

12 proiektu

Hauek nabarmentzen dira:

Zugarramurdiko museoa (857.000 euro) eta leizeak

Maia landa-etxea

Elgorriagako bainuetxea

Bertiz-Doneztebeko bideak

Lesakako estazio megalitikoak

Bidasoako piraguismo-zentroa

Sustapeneko dirulaguntzei dagokienez, 353,325 eurokoak izan dira, elkarteei emandako dirulaguntzak kontuan hartu gabe.

Guztira, 3,8 milioi euroko laguntzak eman zaizkie tokiko erakundeei eta partzuergoei turismo-alo-  
rean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 3an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak 2003. urtetik gaur egun arte irakurzaletasuna sustatzeko erabili duen aurrekontuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak 2003. urtetik gaur egun arte irakurzaletasuna sustatzeko erabili duen aurrekontuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko irailaren 14ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra foru parlamentari jaunak galdetu zuen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak zenbateko aurrekontua izan duen 2003. urtetik orain arte irakurketa sustatzeko, eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak hau jakinarazi du:

Liburutegien sareko ekintza guztiak zuzenean bideratuta daude irakurketa sustatzeko. Hortaz, irakurketa sustatzeko aurrekontua liburutegien zerbitzuko aurrekontu bera da; hau da, 9.973.066 euroko aurrekontua guztira. Irakurketa sustatzeko laguntzak izeneko kontusail berezi bat dago zerbitzuak berak antolatutako eta gauzatutako programak egiteko; besteak beste, Liburuaren Eguna, liburutegia igerilekuetan, liburuxkak... Ondoren azalduko ditut zehatz-mehatz programa horiek.

URTEA	KONTZEPTUA	KREDITUA
2003	Liburuak eta irakurketa sustatzeko ekintzak	49.190 €
2004	Liburuen eta irakurketaren sustapena	55.000 €
2005	Liburuen eta irakurketaren sustapena	73.000 €
2006	Liburuen eta irakurketaren sustapena	50.000 €
2006	Irakurketa sustatzeko laguntzak (deialdia)	44.000 €
2007	Liburuen eta irakurketaren sustapena	40.000 €
2007	Irakurketa sustatzeko laguntzak (deialdia)	60.000 €

2006tik aurrera, bi kontusail daude: bat, aurretik azaldutako helburuetarako eta beste bat, berriz, liburutegiek eurek antolatzen eta gauzatzen dituzten programetarako. Programen zati bati ematen zitzaion dirulaguntza eta gainerako zatia udalak ordaintzen zuen.

2007rako, hasieran aurrekontuan sartutako eta gordetako kopuru osoa emateko aurreikuspena eginda dago.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 3an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren ustez azpiegituretan arazoak edo gabeziak dituzten ikastetxeei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren ustez azpiegituretan arazoak edo gabeziak dituzten ikastetxeei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko irailaren 21eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Galdera

Ikasturte berria hasiera doanez eta urritasun asko dituztenez gure erkidegoko ikastetxe askok, hau jakin nahi dugu:

Ikasturtearen hasieran, Gobernuak ba al daki zer ikastetxek dituzten urritasunak edo zer ikastetxek ez dituzten beharrezko azpiegiturek? Zenbat ikasleri eta zer ziklo eta eredurik eragiten die?

Erantzuna

Ikastetxe gehienek normaltasun osoz hasi dute 2007/2008 ikasturtea.

Ikastetxe hauetan behin-behineko neurriak hartu behar izan dituzte ikasturtearen hasieran, Hezkuntza Departamentuak gauzatutako lanen eraginez:

– García Galdeano HI

García Galdeano ikastetxe publikoan 3 gela arrunt eta psikomotrizitate-areto bat erabili dituzte eraikitzen ari diren Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikoko ikasleak eskolatzeko. Kontratuaren arabera, 2008ko uztailaren 4an amaituko dituzte lanak.

Egoera horren eraginpean dauden ikasleak, zikloak eta eredia:

Ez da inolako gorabeherarik egon. Aurreikusitako datan hasi da ikasturtea, eta normaltasun osoz ematen dituzte eskolak.

– Iruñeko Pedro de Ursua BHI (Mendillorri)



2006ko ekainaren 6an, aldeek zuinketa-akta sinatu zuten, eta, horrela, Mendillorriko BHI eraikitze lanak hasi ziren.

2007ko irailaren 17an eman zen eraikinaren lehenengo fasea, DBHko 15 talderentzat, bai eta eremu osagarriak ere.

Eraikuntza-enpresak atzerapenak izan dituzte, kanpoko kirol-pista ezin izan da erabili irailaren 27ra arte, eta gimnasioa ezin izanen da gimnasio gisa erabili urriaren 19ra arte. Egun horretan amaituko dute gimnasioaren zoladura jartzen.

Egoera horren eraginpean dauden ikasleak, zikloak eta eredia:

Lanen eraginez, bi egun atzeratu da ikasturtearen hasiera (irailaren 13tik 17ra), eta ikasturtean zehar berreskuratuko dira egun horiek (urtarrilaren 28an eta ekainaren 23an).

Ikasle hauek jasan dute horren guztiaren eragina:

Hizkuntza-eredua	DBH 1	DBH 2	Guztira
G	62	43	105
A	43	37	80
D	106	42	148
Ikastelak, guztira	211	122	333

– Almandoz HI

2006ko urriaren 19an hasi ziren Almandozko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa eraikitze lanak. Orubera lurrik ez erortzeko egin zen harri-lubetak bizkar arraro bat zuela ikusi zuten eraikina joanen zen tokitik gertu, eta, hori dela-eta, harri-lubetaren kokapen erreala-aren datuak hartu zituzten.

2006ko azaroaren 22an, eraikuntza-enpresak harri-lubeta kontrolatzeko lortu zituen datu topografikoak jakinarazi zizkion obra-zuzendaritzari. Datuak irakurrita ondorioztatu da harri-lubeta nabarmen irauli eta lekualdatu dela. Harri-lubeta erortzeko arriskua zegoela ikusirik, lanak bertan behera uzteko agindu zuen obra-zuzendaritzak.

Hurrengo egunean, eraikuntza-enpresak Hezkuntza Departamentuari jakinarazi zion harri-lubetaren zati bat erori zela eraikita zegoen eustormaren gainera, eta kalte egin ziola eustormari.

Azaldutako guztiaren eraginez, bertan behera geratu ziren Almandozen Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea eraikitze lanak, eta horren berri eman zitzaion Baztango Udalarai, aipatutako harri-lubeta konpondu edo ordezkatu zezan.

2007ko urriaren 5ean, Baztango Udalak jakinarazi zuen bukatu zuela aipatutako harri-lubeta konpontzen. Hori dela-eta, Hezkuntza Departamentuak abian jarri ditu lanak bertan behera utzi zituen agindua kentzeko eta lanak berriro hasteko izapideak.

Egoera horren eraginpean dauden ikasleak, zikloak eta eredia:

Ez dago gorabeherarik. Aurreikusitako datan hasi da ikasturtea, eta normaltasun osoz ematen dituzte eskolak. Eskola zaharrean ematen dituzte eskolak, ikastetxe berriaren lanak bukatzen dituzten arte.

– Andrés Muñoz Garde ikastetxe publikoa

– 2007ko maiatzaren 14an, aldeek zuinketa-akta sinatu zuten, eta, horrela, Andrés Muñoz Garde HBHI eraikitze lan hauek hasi ziren:

– Gutxi gorabehera 30 m izanen dituzten hiru gelaren eraikuntza. Geletako bat erizaintza gisa erabiliko da. Behe-solairuan kokatuta dago dena.

– 15 m -ko bi komunak eraikuntza, behe-solairuan.

– Gutxi gorabehera 205,50 m izanen dituen arkupe estali baten eraikuntza, erdisotoan.

– Bi patioen arteko tarte igarotzeko arrapala, urritasun fisikoa duten pertsonak sarrera horretatik sartzeko moduan gera dadin.

Lanak esleitu zaizkion enpresak 5 hilabeteko epea du zuinketa-akta sinatzen denetik. Hortaz, aurreikuspenen arabera, 2007ko urriaren 14an izatekoa zen obra-harrera.

Hondeatzeko eta zimenduak jartzeko faseetan zenbait gorabehera gertatu denez eta arazoak egon direnez estalkiko metalezko egitura eta xafla tolestua hornitzeko, gutxi gorabehera 30 eguneko atzerapena egonen dela aurreikusten da. Hortaz, 2007ko azaroaren 14an eginen dela obra-harrera uste da.

Egoera horren eraginpean dauden ikasleak, zikloak eta eredia:

Ez dago gorabeherarik. Aurreikusitako datan hasi da ikasturtea, eta normaltasun osoz ematen dituzte eskolak. Zenbait eragozpen egon dira; besteak beste, toki falta patioan eta zarata, lanen eraginez.

– Tafallako BHI Politeknikoa

2007ko maiatzaren 23an, aldeek zuinketa-akta sinatu zuten, eta, horrela, Tafallako BHI Politeknikoa zabaltzeko lan hauek hasi ziren.

– 20 m -ko hiru bulegoren eta 14 m -ko beste bi bulegoren eraikuntza.

– Interneteko hamahiru postu izanen dituen 64 m -ko informatika-gela baten eraikuntza.

– Hormigoi armatuko plataforma baten eraikuntza estalkian, ikastetxeko ikasleek eskola praktikotarako behar dituzten antenen instalazioa jartzeko.

– Ikastetxeko eraikinen arteko barne-komunikazioen hobekuntza. Zabaltzeko lanetan sortuko den korridorearen bidez elkartuko dira, eta, horrela, hobetu egingen dira barne-komunikazioak eta irte-teko bideak.

Lanak esleitu zaizkion enpresak 162.000,00 euroko aurrekontuarekin (BEZ barne) egiteko konpromisoa hartu zuen, 3 hilabeteko epean zuinketa-akta sinatu zenetik. Hortaz, aurreikuspenen arabera, 2007ko abuztuaren 23an izatekoa zen obra-harrera.

Zenbait gorabehera eta Obren Ataleko teknika-riek ezinbestekotzat hartu zituzten zenbait hobekuntza azaldu zirenez, % 38 garestitu zen gutxi gorabehera lanen aurrekontua. Hortaz, lanak esleitzeko kontratua aldatu behar zen, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean ezarritakoa betetzeko.

Lanen bolumena handitu denez, 45 egun luza-tu da lanak gauzatzeko epea.

Egoera horren eraginpean dauden ikasleak, zikloak eta ereduak:

Ez dago gorabeherarik. Aurreikusitako datan hasi da ikasturtea, eta normaltasun osoz ematen dituzte eskolak. Lanen eraginez, patioan zenbait muga sortu dira, eta, horrez gain, administrarien heziketa-zikloetako ikasleek txandaka ibili behar izan dute toki libreetan.

– Zudaire HI

Lanak esleitzeko fasean dago.

Ez da aurreikusten interferentziarik izanen dutenik lanek ikasleekin; izan ere, gelak ikastetxeko beste eremu batzuetara eramanez dira, lanen eraginik ez duten eremuetara.

Egoera horren eraginpean dauden ikasleak, zikloak eta ereduak:

Ez dago gorabeherarik. Aurreikusitako datan hasi da ikasturtea, eta normaltasun osoz ematen dituzte eskolak. Lanen eraginez, ikasleek txandaka ibili beharko dute toki libreetan.

Iruñean, 2007ko urriaren 9an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, papilomaren birusaren aurkako txertoa jartzen hasteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du papilomaren birusaren aurkako txertoa jartzen hasteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko irailaren 21eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortés andreak galdera egin du papilomaren birusaren txertoa abian jartzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Txertoa eskuragarri dagoenean, gure helburua da dagokien osasun-zentroetako osasun-lan-gileek txertoak jartzea ikastetxeetan, 2007-2008 ikasturtean.

2.- Urtero, txertoa jarriko zaie 12-13 urteko neskei.

Hurrengo 3 urteetan, 15-16 urteko neskei ere jarriko zaie txertoa. Gure helburua da aurtendik aurrera 16 urtetik beherako neska guztiek jarrita izan dezatela giza papilomaren birusari aurre egiteko txertoa. Hortaz, hurrengo 3 urteetan bi neska-talde hauei jarriko zaie txertoa: 12-13 urteko neskei eta 15-16 urtekoei.

Gaur egun, talde bakoitzean 3.000 neska inguru daude.

3.- Ministerioak txerto bakoitzeko ezarrita duen prezioa 104 €-koa da. 3 dosi jarri behar zaizkenez, txertoa hartuko duen neska bakoitzeko 312 euro kostatuko da.

4.- Aurrekontuko kontusaila:

- 48000 proiektua. Osasun publikoko jarduerak
- 548000 52280 2215 313900 lerroa
- Izena: "Botikak"

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 9an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

---

## **Galdera, jakiteko zergatik gertatzen den, oraindik ere, bazterkeria Iruñeko ginekologia-zerbitzuetara jo eta biharamuneko pilula dohainik jasotzen duen emakumearen eta Tuterako aldean zerbitzu horietara jo eta pilula ordaindu behar duen emakumearen artean.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko zergatik gertatzen den, oraindik ere, bazterkeria Iruñeko ginekologia-zerbitzuetara jo eta biharamuneko pilula dohainik jasotzen duen emakumearen eta Tuterako aldean zerbitzu horietara jo eta pilula ordaindu behar duen emakumearen artean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko irailaren 21eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Iruñako eta Tuterako ginekologia-zerbitzuetara doazen emakumeen artean dagoen bereizkeriari buruz; hau da, Iruñean, emakumeei hurrengo eguneko pilula doan emateari, eta Tuteran, berriz, ordaindu behar izateari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

Koito ondorengo pilula doan ematen da Tuterako Osasun Arloan, eskaera bideratzen bada. Eska-

era hori Emakumearen Arreta Zentroan eta Ginekologiako Larrialdietan begiratzen dute.

Nafarroako Autonomia Komunitatetik kanpoko osasun-txartela duten emakumeei soilik ematen zaie errezeta.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 9an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, nekazariak edo abeltzainek ordaindutako edo pairatutako kuoten itzulketa bereziei buruzkoa.**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

M<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du nekazariak edo abeltzainek ordaindutako edo pairatutako kuoten itzulketa bereziei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko irailaren 21eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” parlamentu-taldeko foru parlamentari M<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas andreak 2007ko irailaren 12an egindako galderari erantzunez (885 sarrera-erregistroa), Ekonomia eta Ogasun kontseilariak hau adierazten du:

Hona hemen gure erregistroan dauden datuak nekazariak edo abeltzainek ordaindutako edo jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren aparteko itzulketari buruz:

– Eskaera-kopurua: 4.136

– Eskatutako itzulketaren zenbatekoa: 2.427.142,97 euro

Aurkeztutako eskaerak kontuan hartuz eta Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren martxoaren 21eko 84/2007 Foru Aginduaren arabera, Nafarroako Foru Komunitatearen Zerga Administrazioak bakoitzari dagokion kuota itzultzea adostuko du, eskaeraren onuradunak adierazitako banku-transferentzia bidez.

Zerga Administrazio horrek eskaerak aurkezteko epea amaitu (epe hori 2007ko uztailaren 3an bukatu zen) eta sei hilabetera (2008ko urtarrilera arte) ebatzi beharko ditu eskaerak. Epea amaitu eta eskaerari erantzun ez bazaio, administrazioak eskatutako zenbateko guztia itzuliko du ofizioz, gerora etor daitezkeen egiaztapenen kalterik gabe.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuko zerbitzu teknikoen arabera, urrian hasiko dira itzulketak egiten, ondoren egiten diren egiaztapen laburren kalterik gabe. Egiaztapen horiek lege-baldintzak betetzen direla ziurtatzeko eginen lirateke.

Iruñean, 2007ko urriaren 5ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, oinarrizko osasun laguntza eta laguntza espezializatua koordintzeko itunari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du oinarrizko osasun laguntza eta laguntza espezializatua koordintzeko itunari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko irailaren 21eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández Garaialde andreak galdera egin du oinarrizko osasun-laguntza eta laguntza espezializatua koordintzeko itunari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna: 1.1.- Oinarrizko osasun-laguntza eta laguntza espezializatua koordintzeko 2006-2007ko itunean, eta 2004-2005ekoan ere, honako hau agerida: "koordinaziorako komite teknikoaren batzorde iraunkorrak zuzendaritzeari berariazko jarduketahelburuak proposatuko dizkie eskaintza eta eskariaren arteko alde handiena ikusten den espezializateetarako."

Bi itunek zortzi jarduketa-proposamen zehazten dituzte, bai eskaintzari bai eskariari zuzenduta.

2.- Zortzi proposamenetako bakoitzean garatutako jarduketak:

1.- Ohiko jarduketa areagotzeko formula berriak:

- Segidako kontsulterei buruzko berariazko jarduketak: Kontsulteren Altak Kudeatzeko Protokoloa-Historia Klinikoen Azterketa

- Zerbitzuekin lehen kontsulteren eta azterketen programazioa adostea.

- Lehen kontsulterek Hileko Programazioa betetzen dutela ziurtatzeko jarraipen-egitasmoa.

- Kontsulta espezializatutik segidako kontsulterak egiteko hitzorduak ematea.

- Osasun-txostena postaz bidaltzea vs. E-mailak aurrez aurre kontsultatzea.

- Probekin kontsulta espezializatuetara bideratzea.

- Hobekuntza Komiteek proposatutako berariazko jarduketak.

2.- Bideratzeko zirkuitu alternatiboak edota bereizmen handiko zirkuituak:

- "BGBK areagotzea"ren urtaroko kontsulta-"Buruko mina-Bereizmen handia"ren kontsulta, "Hiperkolesterolemia familiarra"ren agenda.

- Proba osagarriak segituan egitea: Audiometria-Bideonistagmografia.

- Prozesu onkologikoaren arriskua somatuz gero, hitzorduak emateko zirkuitu arina erabiltzea.

- Unitate Funtzionalak bideratzea Traumatologian, Kirurgia orokorrean, Neurokirurgian eta Pediatrian.

3.- Oinarrizko osasun-laguntzaren ebazteko gaitasuna areagotzeko jarduketak: prestakuntza, bideratu gabeko sail artekoak, hornidura teknologikoa, probetarako sarrera, etab.:

- Koordinaziorako Egitasmoaren eskutik lehen-tasunezko gaien inguruko prestakuntza-ikastarok, oinarrizko osasun-laguntzarako.

- Oinarrizko osasun-laguntzarako kontsulteren agendak monitorizatzea.

- Alergologian bideratu gabeko sail artekoak.

- Koordinaziorako Osasun Ekitaldiak osasun-zentroetan: Dermatologian, Kardiologian, Digestiboan, Endokrinologian, Pneumologian eta Neurologian.

- "Bertigoaren Unitate"ra zuzenean bideratzea.

- "Erretinografia Ez Midriatiko"ra zuzenean bideratzea.

- Pediatrian "Arnasketa-funtziorako probak" eta "Izardiaren Testa" egitera zuzenean bideratzea.

- Osasun-protokoloak: osasun-zentro guztietan aurkeztea, eta protokoloa AMIn sartzea (Historia Klinikoa Informatizatua): Arriskuak Bihotz-hodietan-Tiroidean-BGBK.

- Erresonantzia Magnetikorako sarrera "Belau-neko Patologian".

- “Gastroskopia” egiteko sarrera.
- 4.- Zerbitzu estetikoaren mugak aztertzea, bai dermatologian, bai kirurgia plastikoan:
  - Dermatologia Komiteak horrelako zerbitzuak antolatzea proposatu du.
- 5.- Dauden baliabideak berregituratzea:
  - “Ikusmenaren eta entzumenaren zorrotasuna” kontsulta irekitzea.
  - “Erizaintza Hanka Diabetikoa” kontsulta irekitzea.
- 6.- Laguntza-hitzarmen berriak egiteko aukera:
  - Baliabide osagarri gisa, eskaintza eta eskaria bat ez datozen egoeretan.
- 7.- Hobekuntza Komiteetarako berariazko bultzada:
  - 2004. eta 2005. urteetan zehar, 21 komiteek 126 ekitaldi antolatu dituzte.

– 2006an, Oftalmologia Komitea sortu zen.

8.- Kontsultetako ez ohiko programen beharra:

– Espezialitate bakoitzeko eskaintza-eskaria aztertzea eta, ondoren, ez ohiko programaren garapena erabakitzea: Alergologian, Anestesian, Kirurgia Orokorrean, Masail-aurpegietako Kirurgian, Dermatologian, Dietetikan, Digestiboan, Endokrinologian, Hematologian, Pneumologian, Neurologian, Oftalmologian, Nagusien ORL-an, Haurren ORL-an, Pediatrian, Errehabilitazioan, Erreumatologian, Nagusien Traumatologian, Haurren Traumatologian, Urologian.

Hori jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 9an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, Portugalia enpresak Iruña-Lisboa hegaldiak eteteko eta ondoren berriro abian jartzeko izan dituen arrazoiei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José M<sup>a</sup> Vázquez Royo jaunak galdera egin du Portugalia enpresak Iruña-Lisboa hegaldiak eteteko eta ondoren berriro abian jartzeko izan dituen arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko irailaren 28ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” parlamentu-taldeko foru parlamentari José M<sup>a</sup> Vázquez Royo jaunak galdera egin du Iruñetik Lisboarako hegaldiak eteteari buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera

– Zer arrazoi objektibok eragin zuten Portugalia enpresak Iruñetik Lisboarako hegaldiak etetea eta, ondoren, berriro abian jartzea?

– Zer neurri hartu ditu edo pentsatu du hartzea kontseilari andreak Portugalia enpresarekin hitzartua bete dadin, alde bakarreko erabakiak direla eta ez daitezkeen berriro horrelako egoerak gerta eta ez dakizkien eragozpen gehiago eragin erabilzaileei?

Erantzuna

Transportes Aéreos de Portugal (TAP) enpresak Portugalia hegazkin-konpainia bereganatu ondoren, SPRIN erakundeari adierazi zion 2006ko martxotik egunero (larunbatetan izan ezik) egiten zuen Iruña-Lisboa/Lisboa-Iruña hegaldiak eteteko alde bakarreko erabakia hartu zuela.

Adierazpena jaso eta berehala, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Espainiako TAPeko legezko ordezkariarekin batzarra egitea eskatu zuen, egoera argitzeko asmoz, eta gai berriz aztertzeke eskatu zioten konpainiari.

TAPek, besterik gabe, enpresaren estrategia berri bat zela azaldu zion Nafarroako Gobernuari.

Portugaleko TAPeko ordezkariak ere adierazpenak egin zituen komunikabideetan, eta hegaldiak eteteko arrazoietakoa bat ekonomikoa zela esan zuen, konpainiaren arabera % 30 soilik betetzen zelako eta Iruñerako hegaldia mantentzeko lekurik ez zutelako.

Nafarroako Gobernuak behin eta berriro azaldu du hegaldiaren linea horri jarraipena emateko beharra, eta hegaldiko datu errealak eman ditu (% 70 inguru betetzen ziren). Horrez gain, SPRIN erakunde publikoak eta Portugaliak hiru urterako hitzarmena sinatu zuten, TAP hitzarmen hori betetzera behartuta dago. Hegazkin-konpainiak egoeraren azterketa bat egin du, eta Gobernuaren eskaera kontuan hartuz, esandako hegaldia ez etetea erabaki du.

Nafarroako Gobernuak Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak bere esku zeuden neurri guztiak hartu zituen; esaterako:

– Geratu gabe eskaerak bidaltzea konpainiaren legezko ordezkariari, hegaldiaren linea eteteko erabakiarekin aurrera egin ez zezan.

– TAP hegazkin-konpainiari adierazpena bidaltzea, SPRIN erakunde publikoarekin egindako hitzarmenean zer betebeharrak onartu zituen jakinarazteko. Horrez gain, hitzarmena bete ez zela izan zuten ondorioen berri eman zitzaion.

– Nafarroako komunikabideei egoeraren berri ematea, erabiltzaileak aldeztu aurretik ohartarazteko eta ahalik eta kalte gutxien egiteko.

Dena dela, hegazkin-konpainiek merkatu librean lan egiten dute, ezinezkoa da lehiaren erregimena aldatzea eta, horrenbestez, lan egiteko espazioa eta denbora beraiek kontrolatzen dute. Ondorioz, ezinezkoa da Departamentuak aipatutako hainbat neurri hartzea. Halaber, ezin dugu ziurtatu egoera hori berriro ere ez denik azalduko, autonomia-erkidegoetako gobernuek ezin baitute gauza handirik egin, mundu osoko hainbat faktorek baitute eragina konpainien erabaki horietan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 11n

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, aireko ozonoari buruzko 1796/2003 Errege Dekretuari dagozkion urteko txostenei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Txentxo Jiménez Hervás jaunak galdera egin du aireko ozonoari buruzko 1796/2003 Errege Dekretuari dagozkion urteko txostenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko irailaren 28ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak galdera egin du abenduaren 26ko 1796/2003 Errege Dekretuan ageri den aireko ozonoari (PES-65/07) buruz. Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua txosten orokorrak egiten hasi zen Errege Dekretua indarrean jarriaz batera, eta 2004, 2005 eta 2006ko txostenak airearen kalitateari buruzko webgunean argitaratuta daude. Txosten orokor horiek guztiak abenduaren 26ko 1796/2003 Errege Dekretuko 6.3.b. artikuluan aipatzen dira, eta aireko ozonoari buruzkoak dira.

Txostenetako 1. eta 2. ataletan, lortu nahi diren ozono-balioak dituzten eta epe luzerako helburuak betetzen dituzten Nafarroako eremuak azaltzen dira. Nafarroak 4 eremu bakarrik dituela kontuan hartuz, nahiko nabarmena da helburu horiek zer eremutan ez diren betetzen.

2. Txosten orokorretan atal bat dago helburuak eta atalaseak gainditzeko diren ebaluatzeko. Atal horretan, hau dago adierazita: "informazio-atalasea gainditu duten eremuetan, ez digute jakinarazi epe motzean ondorio larriak izanen dutenik atalasea gainditzeagatik". Ondorio horiek gaixotasunak izanen lirateke. Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez du jakinarazi ozonoaren mailarik gorenenak egon direnean biztanleen osasunean ondorio kaltegarriak izan dutenik, ezta kutsatzaile horrek eragin handiena egiten dieten biztanle-sektoreetan ere; esaterako, haurrak, adinekoak, erretzaileak, kirolariak eta bronkitiko kronikoak.

Gai horri buruzko informazio-kanpaina bat garatu zen 2006an, oro har, herritarrei eta, bereziki, osasun-langileei zuzenduta. Kanpaina horretan 1796/2003 Errege Dekretuko II. eranskineko II. atalean ageri den informazioa zabaldu zen, eta osasun-zentroetan, ospitaleetan, ikastetxeetan, kultur etxeetan, gizarte-zerbitzuetan eta interesatutako herriko erakundeetan liburuxka informatibo bat banatu zen.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak urteko txosten orokorrak egin ditu, eta Errege Dekretuan ageri den gainerako informazioa eskuragarri jarri du Nafarroako Gobernua atarian kontsulta daitekeen airearen kalitateari buruzko webgunean.

Galdera, azken atalean, 10.1. artikuluko hainbat epigraferi (b, c, e, f) buruz mintzo da. Artikulu horren arabera, autonomia-erkidegoetako administrazioak behartuta daude Ingurumen Ministerio-ko Ingurumen-kalitaterako eta Ingurumen-ebaluazio-erako Zuzendaritza Nagusiari informazio zehatza banatzera, Europako Batzordeko informazioaren beharra betetzeko. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak bete du Zuzendaritza Nagusia informatzearen betebeharra.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria